

17/25

irizpena

Euskadiko Turismo Mahaiaren
funtzionamendu eta antolaketa-araubidearen

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko abenduaren 22a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 17/25

I.- AURREKARIAK

2025eko abenduaren 5ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Sailaren idazkia jaso zuen, *Euskadiko turismo mahaiaren funtzionamendu eta antolaketa-araubidearen dekretu-proiektuari* buruzko txostena eskatuz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hizpide dugun arauaren xedea da, 1.1. artikulua arabera, Euskadiko Turismo Mahaiaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea da, Turismoaren 2016ko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaion Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak eman zitzaion eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritz.

2025eko abenduare 18n, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen-Proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran aztertzeko. Han aho batez onartu zuen.

II.- EDUKIA

Azalpen-zatia

Gobernantza ireki eta parte-hartzailearen esparruan, funtsezkoa da zenbait mekanismo artikulatzea, turismo-sektoreko eragileak politika publikoen jarraipenean sar daitezen; izan ere, turismoa esparru dinamikoa da, etengabe eboluzionatzen ari dena.

Kultura eta Turismo Sailaren 1987ko abenduaren 15eko 392/1987 Dekretuaren bidez, Euskal Turismoaren Kontseilua sortu zen.

Ondoren, ikusirik turismo-jarduerak gero eta garrantzi ekonomiko handiagoa hartzen zuela eta ekonomia modernizatzeko baliabide gisa etorkizunerako zuen ahalmena kontuan hartuta, organo berri bat sortzea erabaki zen. 1992ko martxoaren 31ko 80/1992 Dekretuaren bidez, 1987ko abenduaren 15eko 392/1987 Dekretua indargabetu, eta Euskadiko Turismoaren Aholku Batzordea sortu zen (Euskal Turismoaren Kontseiluaren ordezt). Batzorde horren osaera eta eginkizunak ezarri ziren, turismo-sektorean eragina duten erakunde publiko zein pribatuek parte hartzeko organo gisa.

Euskadi erreferentziazko turismo-helmuga gisa finkatzeko, beharrezkoa zen sektoreko eragileekiko koordinazioa eta baterako lana areagotzea, turismo-politika efikaza eta efizientea diseinatu eta gauzatuko zela ziurtatzeko. Horren ondorioz, oraingo Euskadiko Turismo Mahaia sortu zen 2015eko urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretuaren bidez, turismoaren arloko aholku-organoa birmoldatzea beharrezkotzat jo baitzen, eta Euskal Turismoaren Aholku Batzordea arautzen zuen dekretua indargabetu zen, organo horren ordezt gaur egun indarrean dagoen Turismo Mahaia ezartzeko.

Geroago, 2019ko apirilaren 2ko 59/2019 Dekretuaren bidez, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen Dekretua aldatu zen. Izan ere, aldaketa hori Euskadiko Turismo Mahaia Turismoa antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen garapenetik dator. Arau horren ordezt Turismoari buruzko 13/2016 Legea (uztailaren 28koa) jarri zen indarrean, eta azken lege horren 6. artikuluan ere ezartzen da

Euskadiko Turismo Mahaia egongo dela. Manuaren 3. apartatuak agintzen du ezen Turismo Mahaiaren kideen artean gizarte-eragileen ordezkariak egon behar dutela ezinbestean, baita sektore ekonomiko enpresarial turistikoarenak ere; horregatik, erakunde sindikaletakoak ere sartu beharko dira. Alde horretatik, garrantzitsua da alderdi sozialak aintzakotzat hartzea turismo-politikak definitzen direnean; ez bakarrik turismoa garatzean lan-baldintzarik egokienak bultzatu behar direlako, baizik eta horrek laguntzen duelako ematen diren zerbitzuen kalitatea hobetzen.

Hala ere, badira zenbait zirkunstantzia erregulazio berri bat eskatzen dutenak, batez ere Euskadiko Turismo Mahaiaren osaerari eta funtzionamenduari dagokienez. Baina horrek ez du esan nahi Mahaia desagertu behar denik, aldaketa Turismoari buruzko 2016ko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 6. artikuluaaren premisapean egingo baita, zeinak Mahaia turismo-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren aholku-organo gisa eratzen baitu, eta 3. apartatuan honela baitio: “Erregelamenduz zehaztuko da zeintzuk diren Euskadiko Turismo Mahaiaren antolamendua, funtzioak, osaera eta funtzionamendua”.

Alde batetik, arau berriak onartu direnez gero —hala nola 2024ko martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua, Turismo-gidarien Euskadiko Jarduerarena—, beharrezkoa da Mahaiko bokalak berregituratzea. Bestetik, komenigarria da orain arte kontuan hartu ez diren gaiak sartzea, hala nola ordezkapenak, agintaldiaren iraupena, kideen eskubideak eta betebeharrak, eta Batzorde Iraunkor bat sortzea; horiek guztiak antolaketa-kontuak dira, Turismo Mahaiaren funtzionamendua askoz operatiboagoa eta argiagoa izatea ahalbidetuko dutenak.

Xedapen-zatia

I. KAPITULUA.- Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta izaera

II. KAPITULUA.- Osaera eta antolaketa

2. artikulua. Egitura

II. KAPITULUA.- Osoko Bilkura

3. artikulua. Osoko Bilkuraren osaketa eta kideak hautatzeko araubidea

4. artikulua. Eginkizunak

5. artikulua. Agintaldia

6. artikulua. Osoko Bilkuraren funtzionamendu-araubidea.

7. artikulua. Adituek parte hartzea

8. artikulua. Presidentearen eginkizunak

9. artikulua.— Osoko Bilkuraren idazkaritza

III. kapitulua.- Batzorde Iraunkorra

10. artikulua. Kideak

11. artikulua. Eginkizunak

12. artikulua. Funtzionamendu-araubidea

IV. kapitulua.- Lan Batzordeak

13. artikulua. Lan Batzordeak

V. kapitulua.- Euskadiko Turismo Mahaiko kideen eskubideak eta betebeharrak

14. artikulua. Eskubideak

15. artikulua. Betebeharrak

Xedapen gehigarri bakarra. Ordezkarritasuna egiaztatzea

Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako arauak

Azken xedapenetako lehenengoa. Araugintza-garapena

Azken xedapenetako bigarrena. Osagarritasuna.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gertatutako inguruabarrek, irizpen honen II. Puntuan (Edukia) jasotakoek, araudi berri bat behar dute, batez ere Euskadiko Turismo Mahaiaren osaerari eta funtzionamenduari dagokienez.

Testuinguru horretan, *“Dekretu-proiektua, Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubideari buruzkoa”* aurkeztu dugu, Euskadiko Turismo Mahaiaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondorioz, **positiboki baloratzen dugu araugintza-ekimena. Hala ere, Kontseilu honen iritziz, kontsultatzen zaigun dokumentua nahasia da zenbait alderditan, eta zuzendu beharreko akatsak eta hobetu litezkeen gabeziak ditu.**

Dekretu-proiektuaren ikuspegia eta turismo-proiektuen eta -planen ondorioak

Proiektuaren azalpen-zatian aipatzen eta goraipatzen da sektore turistikoak hartutako garrantzia, baina deigarria egiten zaigu bertan ez aipatzea turismo jasangarriaren eredu baten beharra, turistifikazioaren fenomenoak egoiliarrei eragiten dien inpaktu negatibo sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak minimizatuko dituen.

Era berean, uste dugu azalpen-zatian, turismo-proiektuen eta -planen alderdi positiboek gain, horiek izan ditzaketen inpaktu negatiboak baloratu behar direla, gizarteari, ingurumenari eta ekonomiari dagokienez, saihestu ahal izateko. Era berean, enpleguaren datuak behar bezala banakatuta hartu beharko lirateke kontuan.

Osoko Bilkuraren osaera (3. artikulua)

- Dekretu-proiektuaren zioen azalpenak gogorarazten duenez, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak agintzen du Turismo Mahaiaren osaeran nahitaez egon behar dutela gizarte-eragileen ordezkariak, bai eta turismoaren enpresa-sektorekoak ere. Hau da, nahitaez kide izan behar duten bi subjektu identifikatzen eta bereizten dira: 1. Gizarte-eragileak; 2. Turismoko enpresa-sektorea.

Harrigarria bada ere, agindu hori betetz, dekretu-proiektuak erakunde sindikalekin bakarrik identifikatzen ditu "gizarte-eragileak". Hala adierazten du berariaz zioen azalpenean, honako hau dioenean: "... horregatik erakunde sindikalak bertan sartuz"; eta hala gauzatzen du 3.1.k) Mahaiko kide gisa "ordezkaritza handieneko sindikatu bakoitzeko ordezkari bat, gehienez lau" sartzean.

Bada, gogoratu behar da ordezkaritza handieneko sindikatuen solaskideak ordezkaritza handieneko enpresa-erakundeak direla (ez turismo-arloko enpresa-sektorea), eta bi horiek (hau da, ordezkaritza handieneko sindikatuak eta enpresa-erakundeak), oro har, legeak Mahaiko beharrezko kide gisa aipatzen dituen "gizarte-eragileak" direla.

Azken batean, uste dugu 3.1 artikularen k) atalean eragile sozial, sindikal eta enpresarial guztiak sartu beharko liratekeela, eta parekotasun terminoetan egin beharko litzatekeela, hori baita Turismo Legearen literaltasunak eta espirituak agintzen dutena.

Bestalde, adierazi behar dugu, nahasmen-egoera horretan, 3.1 artikularen i) atalak, "sektore ekonomikoa"-ri buruzkoak (eta ez gizarte-eragileei), terminologia desegokia erabiltzen duela: "ordezkaritza handieneko elkarteak". Langileen Estatutuaren 6. Xedapen Gehigarrian araututako kontzeptu hori sektore arteko enpresa-elkarteei bakarrik aplikatu dakieke, baldin eta ordezkagarritasun-baldintza zorrotzak betetzen badituzte, eta horrek "gizarte-eragile" izaera ematen die erakundeen ordezkartzari dagokionez (Turismo Mahaia, hain zuzen ere), eta horregatik dira lehen aipatu ditugun ordezkaritza handieneko sindikatuen ispilu-erakunde bakarrak. Ondorioz, aipatutako 3.1.i) "turismoaren enpresa-sektore ekonomikoaren ordezkariak" aipatu beharko litzateke, eta hori da, zuzen esanda, Turismoaren Legean erabilitako terminologia.

Nolanahi ere, argi dago Mahaiaren osaerak, Dekretu Proiektuan ezarritakoa eta adierazi berri duguna kontuan hartuta, emaitza nahasia eta orekarik gabea ematen duela.

- Mahaiaren osaera edozein dela ere, komenigarritzat jotzen da mahaiko kideek adituak zein banaka edo modu antolatuan (herritar eta bizilagun antolatuak) turismoaren ondorio positiboak ez ezik negatiboak ere (sozialak, ingurumenekoak edo ekonomikoak) aztertzeke eta ikusarazteko mobilizatzen diren pertsonak gonbidatzeko aukera ezartzea.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

Zioen azalpena

- Zioen azalpenaren lehen paragrafoan hau adierazten da: "Turismoa Euskadiko ekonomiaren

funtsezko zutabea da". Hazten ari den sektorea bada ere, euskal BPGari egiten dion ekarpena oso urrun dago Euskadiko beste sektore ekonomiko batzuetatik. "Funtsezkoa" adjektiboa ezabatzea proposatzen dugu.

- Gogoeta orokorretan azaldutakoak errepikatuz, bigarren orriko lehen paragrafoak gizarte-, sindikatu- eta enpresa-eragile guztiak jaso beharko lituzke.

Testua honela geratuko litzateke (letra lodiz adierazten da erantsi dena):

*"... Aginduaren 3. paragrafoak agintzen du osaera nahitaez agertu behar direla eragile sozialen ordezkariak, turismoaren sektore ekonomiko enpresarialaz gain, eta, horregatik, erakunde sindikalak **eta ordezkaritza handieneko erakunde enpresarialak** sartu behar dira, kontuan hartuta sektore turistikoak gero eta garrantzi ekonomiko handiagoa hartu duela..."*

- Gogoeta orokorretan jasotako alderdiak errepikatuz, paragrafo bat gehitzea proposatzen dugu, honen antzera:

"Turismoak hartu duen dimentsioa eta eragin negatiboak aldeztu aurretik aztertu gabe hartutako erabakiak direla eta, badira EAEn banaka edo modu antolatuan (herritar eta bizilagun antolatuak) mobilizatzen diren pertsonak, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-ondorio negatiboak aintzat har eta ikusaraz daitezten. Ondorioz, beharrezkoa da mugimendu horiei ahotza ematea, haien ekarpen zehatzak jasotzeko".

3. artikulua. Osoko Bilkuraren osaera eta kideak hautatzeko araubidea

Gogoeta Orokorretan jasotako alderdiak errepikatuz, Mahaiaren osaerari dagokionez, honako aldaketa hauek proposatzen dira:

- 1.i) puntuan azpimarratutakoa kendu da eta letra lodiz ageri dena sartu da:
 - i) Turismo-sektore hauetako **ekonomia- eta enpresa-sektorean** legez eraturako elkarte adierazgarrienetako bederatzi ordezkari:
 1. Ostalaritzako elkarten ordezkaritza bat
 2. Bitartekaritzako turismo-enpresen elkarten ordezkaritza bat
 3. Turismo-gidarien elkarten ordezkaritza bat
 4. Turismo aktiboko elkarten ordezkaritza bat.
 5. Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa-elkarten ordezkaritza bat.
 6. Lau bokal, ostatu hauetako elkarteak ordezkatzuz:
 - i. hotel-establezimenduak;
 - ii. kanpinak;
 - iii. turismo-apartamentuak eta erabilera turistikoko etxebizitzak;
 - iv. nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak

Testua honela geratuko da (letra lodiz adieraziko da aldaketa):

- i) Bederatzi ordezkari, turismo-sektore hauetako **ekonomia- eta enpresa-sektoreko** elkartenak:
 1. Ostalaritzako elkarten ordezkaritza bat
 2. Bitartekaritzako turismo-enpresen elkarten ordezkaritza bat

3. Turismo-gidarien elkarteen ordezkaritza bat
4. Turismo aktiboko elkarteen ordezkaritza bat.
5. Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa-elkarteen ordezkaritza bat.
6. Lau bokal, ostatu hauetako elkarteak ordezkatzuz:
 - i. hotel-establezimenduak;
 - ii. kanpinak;
 - iii. turismo-apartamentuak eta erabilera turistikoko etxebizitzak;
 - iv nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak

- 1.k) puntuan letra lodiz dagoena gehitu da:

k) Ordezkaritza handieneko sindikatu bakoitzeko ordezkari bat (gehienez lau) **eta ordezkaritza handieneko enpresa-erakundeen lau ordezkari.**

- 3. puntuan, azpimarratutakoa kendu da, eta letra lodiz ageri dena sartu da:

3.- Dekretu honen ondorioetarako, turismo-sektorean **ezarpen handiena** duten ordezkaritza handieneko elkarteak honako hauek izango dira:

a) **Ordezkaritza handiagoa** egiaztatzea, **enpresa kopuruaren eta jarduera turistikoe** edo interes turistikoko jardueren **hura osatzen duten langile kopuruaren arabera** izango dena.

(...)

Testua honela geratu da (aldaketak letra lodiz adierazi dira):

3.- Dekretu honen ondorioetarako, turismo-sektorean **ezarpen handiena** duten elkartetzat hartuko dira honako hauek:

a) **Ordezkaritza handiagoa** egiaztatzea, **enpresa-kopuruaren eta hura osatzen duten langile-kopuruaren arabera** izango dena.

(...)

4. artikulua. Eginkizunak (Osoko Bilkurarenak)

Gogoeta Orokorretan azaldutakoa berretsiz, 1.d) puntuan letra lodiz ageri den eransketa proposatzen dugu:

d) Turismo-jarduerari buruzko datuak eta estatistikak ezagutzea, **bereziki enplegua eta haren banakapena aipatuta.**

7. artikulua. Adituen parte-hartzea

Artikuluaren izenburua eta edukia aldatzea proposatzen da, honela:

7. artikulua: Mahaikideak ez diren pertsonen parte-hartzea

Mahaiko edozein kidek eskatu ahal izango du, presidentearen bidez eta Batzorde Iraunkorrari entzun ondoren, Osoko Bilkuraren bileretan parte hartzera gonbidatzeko, bai adituei, bai egokitzen jotzen dituzten teknikariei, bai banaka edo modu antolatuan (herritar antolatuak) turismoaren inpaktu negatiboak –sozialak, ingurumenekoak edo ekonomikoak– aztertzeke eta ikusarazteko mobilizatzen diren pertsonen.

10. artikulua. Osaera (Batzorde Iraunkorrarena)

1. puntuak honako hau ezartzen du: “Batzorde Iraunkorra Euskadiko Turismo Mahaiaren osoko bilkurako kideek osatuko dute, Presidentetzak izendatuta”.

Gure ustez, gutxieneko irizpide objektibo batzuk ezarri beharko lirateke, ordezkatutako interes desberdinen presentzia orekatua bermatzeko Batzorde Iraunkor honetan.

15. artikulua. Eginbeharrak.

2. puntua ordeztea proposatzen da. Honako hau dio, hitzez hitz: “Isilpean eta zuhurtziaz jardutea, emandako informazioari eta eztabaiden edukiari buruzko konfidentziasuna gordez”. Honen ordez: “Leialtasunez jokatzeko”.

Testua honela geratuko litzateke (letra lodiz adierazi da aldaketa):

2.- Leialtasunez jokatzeko**Xedapen gehigarri bakarra. Ordezkaritasuna egiaztatzea**

Letra lodiz dagoena gehitzea proposatzen da:

Turismo-sektoreko enpresak **eta langileak** biltzen dituzten elkarteek eta kontsumitzaileen elkarteek ordezkaritza egiaztatu beharko dute. Horretarako, ordezkaritza hori modu frogagarrian justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute turismoaren arloan eskumena duen sailean, dekretu honen 3.3 artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

V.- ONDORIOA

Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du “*Dekretu-proiektua, Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubideari buruzkoa*” izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbo, 2025eko abenduaren 22an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria